

Eraginkortasuna  
eta eraldaketa,  
Ezker Abertzalearen erronkak  
(Eficiencia política y capacidad  
transformadora, retos de  
la Izquierda Abertzale)

**Patxi Zabaleta**

*Conferencia pronunciada  
el 27 de febrero de 2007*

Forum Deusto



# Eraginkortasuna eta eraldaketa, Ezker Abertzalearen erronkak

Patxi Zabaleta\*

## 1. SARRERA GISEAN. EZKER ABERTZALEA ETA EZKERRAREN ERRONKAK

Ezker Abertzalea eragile politiko anitzek gauzatu dute. Bere egituraketa, oraindik burutu gabea dago, bilakaera gori gorian ari da gauzatzen. Eragile eta joera anitzen bilgune izate horrek badauka bere arrazoa eta, besteak beste, zera da, ezker abertzalearen jatorrian ez dela izan sorrera gune zehatzik, baizik eta ekimen askoren bilketatik eraikitzen ari den esparrua dela eta aldi berean baldintza askoren eraginaren menpe dagoela.

Ezker abertzalearen askotariko jatorri horrek lotura edo harreman egokia sortzen dio euskal gizarteak berezkoa duen aniztasunarekin. Baina gainera ondorioa da eta adierazi egiten du ezker abertzalearen eraketan borroka armatuari buruzko irizpideen ezberdintasunek daukaten eragin sakona.

Ez daiteka ahaztu ere Ezker Abertzaleari bere bereak dituen arazo guztietaz gainera, ez zaizkiola harrotzak nazio-arteko ezkeraren gorabeherak. Ezkerreko teoriak nazio-artean murgildurik dauden arazo eta eztabaida guztiek badute beren eragina eta irudikatu egiten dira Ezker Abertzaleak denboran zehar garatu dituen jarreretan, eztabaidetan eta hausturetan.

Horregatik onuragarria gerta liteke aztertzea ea nazio-arteko ezkeraren baitan gauzatu diren pentsamendu politikoaren teoria eta eztabaida edo episodio ezberdinek zenbateko eta nolako eragina eduki ote

---

\* Patxi Zabaleta Aralarren koordinatzaile nagusia da. Euskaltzain osoa 1988tik. Francoren aurkako ezkutuko ezkerreko erakunde abertzaleetan aritu zen. Hurrenez hurren, EAS, EHAS, HASI. Herri Batasunaren lehenengo Mahai Nazionalean hartu zuen parte 1987tik 1991ra, eta mahaikide izan zen 1994ra arte. Iruñeko zinegotzia hiru aldiz, hautagai-zerrendaburu izanik. Foru Erkidegoko parlamentaria hiru aldiz: 1991n, 1994an eta 2003tik orain arte. ARALARen sustatzaile taldeko kidea eta koordinatzaile nagusia da 2001ean lehen biltzarra egin zuenetik.

дутен Ezker Abertzalearengan. Ikuspegi horrek ahalbidetu egin litzake etorkizuneko aukera berriak.

Baina aldi berean, Ezker Abertzalearen berezitasunak eta bere ikuspegiak —eta oro har, ezker nazionalista guztienak— bideragarria egiten du ekarpenen batek asmaketa ezohikoa edukitzea; batez ere, estaduekin konpromezua eta menpekotasuna daukaten ezkerreko indar politikoek ez bezalako ikuspegi batetik egindako ekarpena litzatekeelako. Horra iradokizun bat sinergia ideologikoen metaketarako!

Bene benetan Ezkerraren erronkak iradokizunez ernaritura dauden gaiak dira, haina baita ere zailtasunez beterik. Ez da ikerketa soil batekin agortzeko gora-behera, baina azterketa eta eztabaida zabal honi zertzelada bat gehiago erantsi diezaioke abertzaletasunaren edo nazionalismoaren ikuspegitik egiteak. Zehazki ezker abertzalearen historiararen ikuspegitik egiteak. Horixe da ekarpen honen xede apala.

Gaiaren atarian bertan azaltzen zaigun lehen galdera orokorra eta gaur egunean gori gorian ipintzen dena zera da, ea zein diren gaur egun ideologiaren beraren zergatia eta zertarakoa. Galdera hauek areagotu egin dira, edo agian ideologikoki bilakatu egin dira globalizapenaren eta Sobietar Batasuneko suntsipenaren ondoren.

Beraz, ezkerreko ideologiaren zergatia eta zertarakoa erantzun behar dugularik, ideologiaren beraien gaur egungo papera eta zentzua ditugu lehen koska edo galdegai. Izan ere, Ideologia Bakarra deitutakoaren teoriak eta Neo-con deituriko jerrerek edo beste eskuineko joera batzuk, —eta ez bakarrik globalizapenaren eta Sobietar Batasuna suntsitu ondoren— ukatu egin nahi baitute ez soilik ezkerreko ideologiaren zentzua eta bideragarritasuna, baizik eta edozein ideologiarena. Beren adierazle amankomuna beti halako lege eta merkatal positibismoa da, betiere bere lehentasuna ezartzeari arrazoi ideologikoak kendu nahi dizkiotelarik, nahiz eta kontraesanen erori.

Zein da ordua, ezkerreko ideologiaren zentzua eta edukia gaur egungo eta etorkizuneko lurbira globalizatuan? Zein dira ezkerreko ideologiaren ezaugarritzat hartu beharreko balioak, jokabideak eta aldarrikapenak edo helburuak? Izan ere, ustez ezkerraren ezaugarritzat izan diren hainbat ideologiako adierazle, gaur egun kolokan edo zailantzan ipini beharra baitago ala berer adiera aldatu eta gaurkotu. Batik bat, hurrengo lau ezaugarri hauetaz ari gara: 1. Klase sozialaren adiera. 2. Estaduaren papera iraultzaren esparru bezala. 3. Ekoizpen bitartekarien eta kapitalaren indar gabetzea, klase ekonomiko eta sozialen mugaketa eragiterakoan. 4. Iraultzaren adiera, estatu baten gauzaturiko aldaketa esentziala eta itzulezina irudia zaharkitu izana.

Ideologiak zertarako orduan? Zertarako ezkerreko aldarrikapenak ikuspegi ideologiko batetik? Eta erantzunak funtsezkoa behar du. Ez baita aski dialektikoa, taktikoa edo estrategikoa itzatea...

Funts funtsean, ezinbestekoa da ideologia giza harremanetan lehenespenak egin ahal izateako, balioak ezartzekotan. Lehenespenak berriz, nahitaezkoak dira eraginkortasuna eta aldaketen norabideak zehaztu ahal izateko. Balio ideologikoak ordea, XXI mendean antropologian eta etikan oinarritu behar dira; binbitartean, materialismo zientifikoaren edo historikoaren kezka fisikaren eta zientziaren inoiz utzi behar ez zituzten alorretara barrutiratu behar direlarik.

Izan ere, gaur egungo soziologian eta politikan marxismoari zor zaizkion hainbat eta hainbat ekarpen ukaezinak ezkutatuak gelditzen dira batzuetan, marxismoak berak bere buruari ipini nahi izan dion behin betiko eta orotariko ideologiaren aldarean. Marxismoak dialektikoki, hau da marxistaki aztertua izan beharko luke; eta ez dogma moduan. Zera alegia, ideologiaren bilakaeraren dialektikaren urrats edo episodio bat gehiago bezala; gainditua izan behar duen urrats bat bezala alegia. Ikuspegi horretarik aitortu egin behar zaizkio marxismoari gaun egungo giza zientzietako azterketak ahalbideratu dituzten hainbat eta hainbat ekarpen egin izana; eta hori, nahiz eta ekarpen horien ondorioak maiz gaindituak gelditu diren.

Laburbilduz, ideologia da izan ere, gizartearen etorkizuna eta bere hobetzea irudikatzeko ahalbidea ematen diguna. Ideologia da lehenespenak edo aukerak egiteko balioak ezarriz, bidea irekitzen diguna. Soilik ideologiaren bitartez erantzun diezaiokegu gizarte harremanen aldaketarako edo elkartasunezko aukerari. Eta bereziki, soilik ideologiaren bitartez eraiki eta zehatz dezakegu ezker politikoaren zeregina, zentzua, mezua eta egitarauak; zeren eta eskuin politikoaren berezitasuna ideologia baztertzea edo alboratzea baita, zuzenki ukatzea ez denean.

Non eta zertan datza orduan, ezker eta eskuin politikoaren lehia ideologikoaren muina?

Eskuin politikoak ez du sistema ideologikorik edo etorkizuneko eredu zehatzik; horixe da bere ezaugarria. Gehienetan ordea, ez du aitortzen bere ideologiarik eza. Salbuespen bat aipatzearen Fernandez de la Mora, Franco diktadorearen ministro ohia ekarri beharko genuke hona; honek bere Ideologiaren Ilunabarra edo «El Crepúsculo de las Ideologías» izeneko liburuan garatzen baitu ideologiaren ezaren aitortpena. Maiz ordea, eskuin politikoak ordezko itxurak edo hitzezko suzedaneak biltzen ditu, bere ideologiarik eza aitortzera beharturik ez izateko, xede dialektiko hutsengatik, jakina. Suzedaneo ideologiko hautatik guztxie-

nez hiru aipa litezke: 1. Ideologia Bakarra izena edo deiera; ez baita teoria bukatu zehatz bat. 2. Positibismo juridikoa, orain ustez kategoria ideologikoaren mailara igo nahiekoa. 3. Errukiaren eta urrikaltasunaren aintzat hartzeak, orain hain modan jarriak Thatcher eta Bush ondoreko giro neo-con eta yuppy-etan.

Eskuin politikoak bada, eredurik ez duenez gero, bertako egoera sozio-ekonomikoaren mantentzea helburu bakartzat harturik eta nola-baiteko kudeaketa a-ideologiko baten bitartez, desorekak eta pitzadurak gainditzea eta hazkunde ekonomikoari eustea dauka xede orotzat. Begi ideologikoak itxiz, zehazki nazio arteko eragile eta indar ekonomikoen morroi eta menpeko bilakatu da, eragile horien baitan erabaki garrantzitsu guztiak utziz. Eskuin politikoa horrela, nazio-arteko eragile ekonomikoen galdurra den inperialismo yanqui-aren zerbitzari baizik ez daiteke izan maila edo ikuspegi ideologikotik begiratuta. Horrela eskuin politikoa ilunbe ideologikora amildu da.

Izan ere, Liberalismoa izan zen eskuin politikoaren azken ideologia eta hark ezarri zion merkatalgoko baikortasun ekonomikoa. Liberalismoa ordea, kapitalismoaren garaiko ideologia da eta geroztik neokapitalismoa eta post-kapitalismoa bera ere garatu egin dira. Esan genezake Smith-ek puztu egin zuela ekonomiaren puxika eta Keynes-ek berriz, soilik adabakiak ipini zizkiola puxikari bere pitzaduretan.

Baikortasun liberal zaharkitutik edo ilunbe idologiko postkapitalistatik ezin die eskuin politikoak inolako erantzun ideologikorik eman XXI mendeko lau arrisku globalei: arrisku nuklearra, ingurmen desoreka, hego-ipar desoreka sozio-ekonomikoa eta maltusianimoa. Horiek dira XXI mendeko Apokalipsiseko zaldunak eta horien aurrean gizadiak mailako erantzunak behar ditu. Ez dira aski baikortasun ekonomiko mugagabea edo bere aidea den erlijioeko probidentzia. Zientziak adierazita dauka aurrerapenak eta ikerketak ezin dutela onartu eguzki pean ezer berririk ez dagoelako lelo zahar hura.

Baina eguneroko praxis politikoan, eskuinak ihes egiten du eztabaida ideologiko zehaztetatik. Eskuinak eztabaida politikoa epe laburreko edo berehalako etekin ekonomikoen lahian ipini nahi izaten du; erretagarritasun ekonomikoaren lahian alegia. Eta eztabaida horretatik ere ezin du ihes egin ezkerrek.

Beraz, eztabaida ideologikoa maiz eztabaida meta-politikoa bilakatu da, politikatik haruntzago dagoen eztabaida alegia; eztabaida akademikoa. Baina hori ezin da onartu bere osotasunean. Etorkizunari buruzko galderek erantzun politikoa ere behar dute, nahiz eta ez soilik politikoa; eta erantzun hori ideologia politikotik baizik ez daiteke eman.

Aldi berean ordea, egunerokotasunari so egiteaz ez du ahaztu behar ezker politikokoak eta ezin dio muzin egin ezta errentagarritasunaren eztabaidari berari ere. Hain zuzen ere eta besteak beste, arlo horretan bertan azaldu behar duelako ideologiatik edo ideologia ezetik ematen diren erantzunen arteko ezberdintasuna. Eskuineko erantzunek soilik epe laburrera begiratzen duten bitartean, aitzitik, ezkerrekoak askotan epe laburrekoa epe luzekoaren mene eta zerbitzura ipini nahi izaten du.

Bestalde ordea, badago ideologia bakarraren mitoarekin batera barreiatutako beste mezu aztertu beharrekoa, zera da, ideologiaren lehian eskuinak behin betiko garaipena lortua duela diona. Sobietar Batasunaren suntsipenarekin lotu ohi da ustezko garaipen ideologiko hori. Baina mezu hori ere trikimailu bat da. Aitzitik, zerbait ondorioztatzen bada, esate baterako Europako Batasunaren eraikuntzatik, zehora aurkakoa da hain zuzen ere, ez baita inon eta inoiz ezkerrearen ikur eta ezaugarri diren ekonomiaren planifikazioa eta ongizatearen zerbitzu publikoak hain zehazki eta erroturik garatu.

Ezkerrek beraz, lehia ideologikoa bilatu egin behar du eta epe luzerako azterketa ideologikokoak, eguneroko arazoek eskatzen dituzten epe motzerako aterapideekin lotuta eman behar ditu. Hankak lurrean kokatuta, baina kareletik begirada kendu gabe. Erreformaren eta iraultzaren arteko dialektika agortuta dago, gaindituta dago. Kaleko laborategian, gizartearen eguneroko premiei eta eskakizunei erantsiak oldoztu behar ditu ezkerrek bere egitasmoak, baina epe luzerako asmoak ahaztu gabe. Politikagintzaren arragoan frogatuak behar dute egitasmo politikoak, suan frogatzen baita eltzea, erranairu zaharrak gogoratzen duen bezala.

Politikaren arloan, filosofiaren edo pentsamenduaren arloan bezalaxe, praxisa da azken finean irtenbideen zuzentasuna adierazten duena. Adibidea Emmanuel Kant filosofian berak eman diguna da; hau da, Arrazoi Soilaren Kritika deitutako saioan aztertu ondoren ezagueraren arazoak; gero, Arrazoi Praktikoaren Kritika deituriko idazkian bizipenetik laxatu eta aterapideak aurkitzen dizkielarik. Aintzinean Aristoteles izan zen aurrekaria. Bertagoan Deskartesek Zalantzaren Metodoan bizipenetik gaizpentsurako jauzia eraiki zuen zalantzaren zubian eta, ondoren, Funtzionalismoak eta gero, Estructuralismoak antropologian eginen zuten bezalaxe. Politikak pentsamenduak eta filosofiak erabili duten norabidean egin beharra dauka.

Eta hara, 1968-ko Parisko maiatzako gertakizunak ez zituen inork aurreikusi, baina gertakizun haiek zaharkituta utzi zituzten ordurarteko ezkerreko eragile politiko eta sozial nagusien jokabideak. 68-ko Parisek aldatu egin zituen ezkerrearen kezka garrantzitsuenak, itxuraldatu hel-

buru eta egitasmoak eta berehala azkartu egin zen ezkerreko erakunde guztien bilakaera.

Gaur egun ere, Europako eta, oro har, mundu osoko ezkerria bilakaera eta garapen garrantzian mugildurik dago. Bere egituraketak eragin zuzena izanen du gure ezkerrean. Esana dugun bezala, euskal ezkerriari ez zaizkio harrotzak nazio-arteko ezkerriaren arazo ideologikoak eta praktikoak. Egin dezagun ahalegina hemendik ere ikuspegi bereziren baten ekarpena egitearren.

Politikaren foro soil eta gordinaren praxisean irabazi beharko du egunero ezker politikoak gizartearen onespina. Baita ezker abertzaleak ere, baina horretarako, alde aurretik bakegintzaren azterketa dauka gaintitu beharrik. Erronkak ez dira ttipiak; alde batetik, eraginkortasuna eta bestetik eraldaketarako gaitasuna; eta guzti hori, epe luzerako erronkak ahaztu gabe. Hankak lurrean, baina begirada karelean zaldi gainean dabilten erronka globaletatik kendu gabe.

Ezkerrek ez dauka galdera guztientzako erantzunik. Baina eskuinak ez du galderarik egiten. Hor dago gakoa.

## 2. EZKER ABERTZALEKO EZTABAIDA NAGUSIEN AZTERKETA

### 2.1. **Altsasuko Mahaia**

Frankismoaren azken urteetan sorturiko alderdiek eraiki zuten Altsasuko Mahaia 1977ko udazkenean. Ordurako lehen hauteskundeak eginak zeuden eta horiek baino lehenago Suarez-en Erreforma Politikoa erreferenduma eta abar. 1975an haustura politikoaren alde azaldutako PSOE edo PNV eta PCE bera ordurako erreformaren ildoan sarturik zeuden.

Altsasuko Mahaian bildutako alderdiak bost izan ziren: EHAS, ESB, LAIA-bai, ANV eta hasiera batean EIA. Baina EIA, ETA PM-ren «OTSA-GABIA» (Erreka+Pertur-Onaindia) izeneko egitasmotik sortua zen eta 1977ko hauteskundeetara Euskadiko Ezkerria bezala aurkeztu eta beste bideak hartu zegoen. Horregatik eta nahiz eta Altsasuko Mahaiaren lehen bilkurara azaldu zen (:Mario Onaindia bera eta Bixente Serrano Izko), bihamunean bertan hautsi zuen lotura hura.

Altsasuko Mahaiako alderdi bakoitza jatorri ezberdinetako zen eta ETA erakundearekiko bere harremana, jarrera eta eraginaren maila ezberdina zuen.



Bi ikuspegi berehala azaldu ziren. Lehenik, EHAS alderdiaren II kongresuan, Urbeloagan: A) Bata, politikaren lehenetasuna aitortu eta lehia politikoan buru-belarri murgiltzearen aldekoa; hauteskundeetan eta erakundeetan eskuhartu, erkideak sortu eta kongresuak egitearen aldekoa. Españiako erreforma, nahiz eta kritikatu, aintzat hartzearen alde kokatzen zena. Gatazka armatua elkarrizketa anitzen bidez konpontzearen zegoena. B) Bestea berriz, hauteskundeetan eta erakundeetan parte hartzearen kontrakoa; erkide agerikorik ez izatearen eta kongresurik ez egitearen alde kokatzen zena. Hauteskundeetan ez murgiltzea eta erakundeetan parte ez hartzea proposatzen zuena. Arreta nagusitzat negoziaketa politikoa (ETA Estaduko Indar egaizkoekin) lortzea zeukana. «Amnistia ez da negoziatzen» leloarekin eta haustura politikoaren aldarrikapenarekin lerrotatzen zena. Iraultza sozialista hartu zuten helburutzat eta demokrazia formalarekin oso mesfidati eta kritiko azaldu ziren maiz.

EHAS alderdia bere II kongresu horretan HASI bihurtu zen. Aldaketa horrek Altsasuko Mahaiaren indar gabetzea ekarri zuen 1978an.

1979an ordea, hauteskunde munizipalak eta foralak zetozen eta nahiz eta EHAS alderdian egondako batzuk kanpoan geunden, HERRI BATA-SUNA sortuko zuen lehen BABES ELKARTEA (:Junta de Apoyo; gero Junta Nacional; eta ondoren Mesa Nacional deituko zitzaiona.) eratu genuen.

Hamabi pertsona ginen eta berpiztu egin zen Altsasuko Mahaiaren ildoak eta bultzapena.

1979-ko hauteskundeak...

H:B: izena....

Gero, 1981 Euskal Parlamenturako hauteskundeak, hitza jatea eta bigarren haustura ¡!!

HB erakundeetatik atera zenean

Piskanaka piskanaka HB sartu zen erakundeetara, baina 1993 ETaren Alternativa Demokratikoarekin eta gero, OLDARTZEN eta BATEGINEZ erabakiekin ETAK hartzen du gidaritza politikoa abanguardia baten modura.

Izan ere, ETA-Militarrekoek Desdoblamentuaren egin ondoren, gero ENDOBLAMENDUA egin baitzen.

OLDARTZEN eta BATEGINEZ eraikuntza nazionalaren proposamenekin urrutiratu egiten dira berritua DEMOKRAZIA FORMALAZ eta ekintza mailako proposamenak egiten dituzte.

Guzti horri erantsi behar zaio ETA erakundeak gizarte osoan eta bereziki ezker abertzalean duen eragina.

Hogeitamar urteren buruko laburpena zera da, Ezker Abertzaleak bide politikoetatik baizik ezin duela jokatu eta horretarako ETA erakundearen eragina baztertu egin behar duela eta inolako ordainik eta baldintzarik gabeko bakea lehen helburutzat aitortu.

Borroka ideologikoa da beti emankorrena politikan eta baita Ezker Abertzalearen esparruan ere. Horregatik ezin dugu gure harrotasuna ezkutatu, beste ildokoek gure proposamenetara hurbiltzen diren aldioro.

## 2.2. **Eztabaida garatu den arlo, aldarrikapen eta helburu edo kezka politiko nagusiak**

- Lurraldetasunaren aldarrikapena.
- Autodeterminazioaren egitasmoa.
- Ezkerraren papera eta definiketak. Ezker Ohikoarekin harremanak.
- Iraultzaren aldarrikapena eta aldarrikapen hori alboratzea.
- Demokrazia formalaren edo ordezkatzaillearen aurrean hartu beharreko jokaera edo papera.
- Iraultzaren kontzeptua edo aldarrikapena «eraikuntza nazionalaren kontzeptuarekin ordezkatzeta».

## 2.3. **Ezker Abertzalearen etorkizuneko eztabaida eta erronka ideologiko nagusiak**

2.3.0. **BAKEGINTZA + NORMALKUNTZA POLITIKOA.**

2.3.1. Beste abertzaleekiko harremana.

2.3.1. Beste ezkerreko mugimenduekiko harremana.

## 2.4. **Zeharkakotasun edo tranbertsalitate politikoaren premia, aurrerakoitasuna eta etorkizuna. EB-Aralar koalizioaren aurkezpena**

2.4.1. ***Erantzunkizun politikoak*** bultzatzen gaitu elkarlanerako halegin hau burutzera.

Ez genuen saio hau inoren aurka hasi eta dugu inoren eta ezeren aurka burutuko. Herriaren alde jokatu nahi dugu.

Aralar eta EB/Berdeak egin dugun koalizio hau da hau Euskal Er-kidego Autonomikoko gizarteari eskaini diezaiotzekun aukerarik bikai-nena.

2.4.2. **Ezberdinen arteko elkarlana** da bultzatu nahi duguna. Bat egiten gautuena da ezkerrekoak eta aurrekoiak diren politikak de-fendatu nahi izatea. Ezberdintasunak aitortuz elkarlana.

Independentistak edo federalistak aitortzen garenok bide luzea egin dezakegu elkarrekin. Bizimoduko eta politikako arlo askotan, arlo gehienetan elkarrekin ez-ezik, gizarteko beste eragile, ikuspegi eta sen-timendu hainbatekin ere elkar ulterzen eta adosten saiatu nahi dugu.

Aniztasunarena da etorkizuna eta aniztasunaren irudirik eta eredu-rik sakonena zeharkakotasuna bilatzea da.

Euskararen garapenari buruz, lan harremanen esparruari buruz eta beste hainbeste arlotan ditugun ikuspegi ezberdinen adierazle amanko-munak bilatzen saiatu gara eta adostu dugun hitzarmen politikoaren txostena edo dokumendua da ahalegin horren adibide bikaina.

2.4.3. **Ezker Erabakiorra** da herri honek behar duena eta jokabi-de, indar eta esparru hori eraikitzen saiatu nahi dugu. Eguneroko bizi-moduan eragin ahal izanen duena; hitzarmenak eta paktuak egiteko gaitasuna duen ezkerria; ingurumenaren zaintzan indarra eta adorea adieraziko duen ezkerria; eskola, sendakuntza eta serbitzu publikoen duintasuna bultzatuko duen ezkerria.

Izan ere, Ezkerria erabakiorra bilakatzen da oihukatzen baino en-tzutzen gehiago dakienean. Ezkerria erabakiorra izatera iristen da are-rioak astintzen baino eztabaida politikoan borondateak irabazten dituenean. Ezkerria erabakiorrak itunak egiten ditu eta ez haserreak astindu. Ezkerria erabakiorra bilakatzen da tinko eta indartsu gizarte osoaren alde jokatzeko duenean eta bereziki behartsuenen alde koka-tzen denean.

2.4.4. **Ezker Eraldaitzailea** eraiki nahi dugu. Etorkizunari so, in-dar aurrerakoiak bildu ahal izanen dituena.

Aurrerazalea eta progresista den Euskal Herriko gizarteak zentzu bereko indar politikoak behar ditu; aurrerazaleak.

Euskal Herriko langilegoak, ikaslegoak eta oro har, gizarte honetako eragilerik dinamikoenak inolako abanguardiarik gabeko eta askatasun eta zabaltasun osoko erreferentzia politikoak behar dituzte.

Eraldatzaile izateak ustelkeria ororen aurrean tinko eta zintzo saiatzera behartzen gaitu. Inolako salbuespenik edo etenik gabeko ustelkeriaren aurkako borrokan.

#### 2.4.5. **Garapen jasangarria** da gure xede nagusia.

Eraikuntza publikoak, ondakinen politikak, lurralde antolaketa ingurumenaren zaintzaren babesean ipiniko ditugu.

Ingurumenaren zeharkako balio xede nagusia bilakatzen da eraginkorra eta eraldaitzailea izan nahi duen ezkerrarentzat.

#### 2.4.6. **BAKEA da halere**, indarrrik handienaz bategiten gaituen helburua.

Inolako baldintzarik, lorpen politikorik edo oztoporik gabeko helburua da guretzat bakea.

Bakearen aldeko saioan ez dugu inolako protagonismorik bilatuko, baina erantzunkizun osoz eskainiko dizkiogu gure adorerik kemen-tsuenak.

2.4.7. Elkarlaneko itun hau izenpetzen dugunean ezin ahaztu gure artean ere, Aralarren baitan bertan ere, baditugu ikuspuntu eta jarrera ezberdinak dituzten erkideak. Denak dira errespetagarriak eta denak errespetatu nahi ditugu.

2.4.8. Aralar alderdiak buru belarri murgildu nahi du ahalegin honetan eta, besteak beste, ni neu NAFARROA BAIK Nafarroako Legebiltzarreko hautekunderetan zerrendaburu izzendatu nauenez gero, alderdiko ardura nagusiaren zereginak ION ABRIL koordinatzaile ordearen esku utzi ditut, joan den astelehenko Batzorde Eragilearen erabakiz.

Eta horregatik berari hitza ematea dagokit orain. ION ABRILEk bere bizkar gaztearen gainean hartu du ARALAR alderdiaren kudeaketako ardura nagusia. Berea da hitza.

2.5. Euskal Herriaren independentzia aukera demokratikoa da. Independentziaren aukera Euskal Herriarentzat gaur eta hemen, XXI mendean, Europaren erdian eta bi estadutan eta hiru egoera autonomikotan zati-turik dagoelarik ez da aukera erraza, baina ahalbidera litekeen aukera duina da. Zintzotasunez eta errealismoz bultzatu daitekeen aukera.

Independentziak XXI mendean eta Europan bide bat bakarra du, gehiengoaren borondatea irabaztea. Horretarako zaitasunak izugarriak dira eta agian handiena, gizarteak berak daukan ongizate maila hobeki zaindu eta bermatu ahal izateko? lehiatu beharra. Bi estadien indar ikaragarria ezin da ahaztu, baina XXI mendeko estadiuekiko dema ez da armaz gauzaten, baizik eta gizartearen etorkizuna hobetzeko lehiari.

Independentismoaren etorkizuna ezker abertzale orokorrak —Batasunak eta Aralarrek— aspaldian bere baitan garatu duen eztabaida da; umatze oinazeak eragin dizkion eztabaida. Azken aldi honetan ordea, eztabaida.

### 3. GLOBALIZAPENAK IDEOLOGIA POLITIKOETAN DUEN ERAGINA

XX mendeak utzi dizkigun aldaketa sakon askoren artean, eta besteak beste, globalizapena deitzen dugunaren hedapena eta sozialismo errearen suntsiketa daude.

Globalizapena fenomeno anitza da. Oinarria teknogikoa du. Bere eduki eta ondorioak berriz, ekonomian, gizarte ereduetan eta politikan hedatzen dira. Baina gizakiontzat bere eragin sakonena giza harremanetan dauka eta ondorioz ideologian dauka; bereziki antropologian. Globalizapena atzeraezina da. Hemen dago, betikoa da eta ez da ezer lehen bezalakoa izatera izatera itzuliko giza harreman arloan.

Sozialismo errearen ereduak suntsitu izanak berriz, IRAULTZA kontzeptuaren edo egitasmoaren bideragarritasuna ezabatu du; edo agian hobeki esateko agerian utzi. Agian bideragarritasun eza bade-lako horrek bultzatu zuen errealismo erreala eta sobietar inperioaren ezabapena.

Izan ere, sobietar inperio harranditsu eta harrigarri hura ez zen suntsitu ez arrazoi militerrangatik eta eztaere arrazoi ekonomikoengatik. Arrazoi politikoengatik suntsitu zen Sobietar Batasuna eta bere inperioa; barneko gizartearen bilakaerak eragindako arrazoi ideologiko, soziologiko eta politiko peto petoengatik soilik. Gudu hotza deitutako hamarka luzeetan borroka militar sakon bat eta lehiaketa ekonomiko eta teknologiko bortitz bat garatu zuten elkarrekin bi inperioek, Mendebaldekoak eta Sobietarrak, baina ez zen horregatik suntsitu itxuraz hain trinkoa zirudien egitura hura, baizik arrazoi soil soilik ideologikoen akuilaturik. Aski da Mijail Gorbachov-ek idatzitako liburuak eta agintea eduki zuen bitartean aideratutakoak aztertzea. Lenin eta Stalinen iraultza, batik bat Errusiako gizartearen bilakaera-

rentzat ezin jasana bilakatu zen eta horregatik eta ez beste edozeren-  
gatik suntsitu egin zen.

Nahiz eta sozialismo errealearen suntsiketaren eragileak ideologia  
izaera eduki, gertakizun horrek izugarrizko ondorioak ditu; bereziki  
ezker politikoaren baitan. Globalizapenaren inguru-giroan eta baldin-  
tzetan proposatuko ditu hortik aurrera nahitaez ezker politikoak. Ha-  
rreman ekonomikoak ez dira dagoeneko estadien esparru barnekoak.  
Estadua ez da ondorioz iraultza orniduraren egitura. Globalizapenak  
eta Errusiako gizartearen bilakaerak ezabatu egin dituzte zeharo Leni-  
nismoaren aurreikuspenak eta batez ere IRAULTZAREN ikurra.

Globalizapenaren dituen ikuspegi anitzetatik bere oinarri tenologikoa  
eta izaera atzeraezina agerikoak direnez gero, alde batera utzita, ekono-  
miaren aldaketan duen eragin zuzenaren zertzelada batzu aipatu behar  
dira sarrera moduan: Ekonomiako eragile nagusiak nazio-arteko izaera  
edo maila lortu izana ez da egitasmo politiko baten ondorioa, baizik eta  
harreman guztien eta haien artean harreman ekonomikoen aldaketaren  
ondorioa. Enpresak multinazionalak ez dira sortu inperioaren hatzapar  
edo egitasmo moduan, baizik eta azoka edo merkatua nazio-arteko sa-  
rea eta mugaz gaindiko mailakoa bihurtu izanaren ondorioz.

Eta batez ere, giza-harremanen hedapena, eta horien artean, harre-  
man ekonomikoen hedapena muga guztien gaindiko sarea bialakatu  
delako.

Merkatuaren eta giza-harremanen globalizapenak atzera-ezina dira.  
Eta horregatik ekonomiako eragile nagusiak, enpresak, estadien eta  
muga guztien gainetik, edo hobeki esateko muga guztietatik at dirren  
izakiak bezala ikusti behar ditugu. Enpresek herri batekiko daukaten  
eta izanen duten harremanak hiru euskarri ditu: A) Bertako atxikimen-  
dua edo nolabait esateko bere helbidearen kokapena. B) Eginkizunen  
kokapena. C) Harreman fiskala.

Baina globalizapenaren eraginak maila ekonomikoan baino sako-  
nago ere azaltzen dira giza harremanetan eta pentsakeran bertan.  
Globalizapenak antropologia bera aldatu du arlo askotan. Izan ere, glo-  
balizapenaren kontzientzia edo oharpena lehenik arrisku globalen on-  
dorioa da:

3.1. Lurbiraren desegitea eragin lezakeen eztanda atomikoaren  
beldurra.—Globalizapenaren lehen kontzientzia edo oharpena arrisku  
globalarena izan da niretzat. Gizakiak lurbira osoa urratu eta desegin

dezakeela jakinaren gainean jartzea. Leherketa atomikoaren ez-tandaz gizakiak mundua desegin dezakeela ohartzea alegia.

Kontzientzia unibertsal horri buruzko azterketa nik lehenik Roger Garaudy filosofoaren liburu batean irakurri nuen. Garai batean Frantziako Alderdi Komunistako Batzorde Eragileko kide eta gero musulmandarra eginen zen Garaudy. Delako liburua ordea, jakintsu eta intelektual marxistak eta kristauak XX mendeko erdialdean izandako elkarrizketak azaltzen dituen da eta bertan Garaudy filosofoak aditzera ematen ditu lehergailu atomikoak pentsamendu sozialean eragindako aldaketak.

Lehergailu atomikoa asmatu arte edo Einsteinek gerrate atomikoaren ondoreko gudua makilka izanen zelako txantxa ezagun hura egin arte, munduaren bukaera kanpotik zetorren zerbaitek eragindakoa bezala irudika zitezkeen soilik. Apokalipsisa alegia. Baina bonba atomikoarekin gizakiak, lurbira osoa desegin dezake.

Hobeki esanda ordea, balizko desegiketa horren tresnak nazio-arteko gizartean, estadietan eta inperioetan agintzen dutenek dauzkate. Gero eta agintari gehiago dira eta gero eta barreiatuagoa dago arriskua, zeren eta maiz gainera, lehergailu atomikoen giltza daukaten agintari horiek konfidantza gutxi ematen baitute.

Arrisku globalaren beldurra kontzientzia globala sortzen du. Eta nahitaez irtenbide zehatzak ipintzera garamazki: Zein? Atomoaren erabilera militarra ezaba dadin eta atomoaren beste erabilera teknologikoentzat etetea edo moratoria. Erabilera horien arriskuak ez daude oraindik teknologikoki gaindituak; leherketa arriskuak, kutsadurak, isurketa eta ihesaldi kontrolik gabeak, utzikondoak eta abar ez dira oraindik teknologikoki .

Eta erantzun hau, bere ezaugarri eta xehetasun anitzekin, erantzun ideologikoa da; ezkerrek, ezker berriak, bere egiten duena.

3.2. Bigarren arrisku globala ez-tanda ekologiko geldoarena da. Desoreka ekologikoaren ez-tanda geldoa.

Azken urteetan sortutako moeta ezberdinetako mugimendu ekologikoen agerian jartzen duten bezala, desoreka ekologikoak gizakion bizimodua kaltetu ez-ezik, desorekatu eta ezinezkoa bihur lezake. Desoreka ekologikoak ere desegin edo urra dezake lurreko bizitza.

Arrisku horren aurrean ere, hazkunde ekonomikoa ezin dela mugarik gabe mantendu. Ezinezkoa dela etorkizuneko garapen eredu bezala.

Arrisku global honen aurreko erantzun ideologikoa hazkunde ja-sangarriaren proposamena da.

Ezkerrak, ezker berriak, bere egin beharra dauka erantzun ideolo-giko hau.

3.3. Hirugarren arrisku globala munduko Iparraldeak eta Hegoal-deak elkarrekiko irudikatzen duten desoreka ekonomikoa eta soziala da. Hirugarren mundua deitzen dugunarekiko desoreka alegia.

Ipar eta Hegoaren arteko desoreka hori ez da globalizapenarekin murrizten ari, baizik eta neurriren batean sakontzen. Eta Sobietar Bata-sunaren suntsiketa ondoren hirugarren munduarekiko ikuspegia alda-tu egin da, baina ez zuzendu, zeren eta lehenago bi inperioen arteko gatazkaren froga-leku papera betetzen bazuten ere, orain utzikeriaren ondorioak jasaten dituzte..

Nahiz eta egia den ongizate zerbitzuen maila apaletara estatu eta nazio batzu hurbiltzen ari direla; nahiz eta egia dela dirudien mila milioi pertsonetik, lau mila milioi pertsonetara iristen ari dela ongizate zerbi-zuen maila apala, batez ere Txina, India eta Urrutiko Ekialdean.

Baina aldi berean USAren barruan, eta neurri batean Europan ere hirugarren mundua sartu egin da. Inperioaren bihotzean sartu den lun-pen proletariodu hori, hirugarren mundu hori ongizatearen zerbitzu guztietatik at dagoela dirudi. Eta horixe da, hain zuzen ere, alde bate-tik Europako Konstituzioa eztabaidatu zenean eta eztabaidatzen de-nean gako nagusia. Eta horixe izanen da, dirudienez, baita ere datozen USAko hauteskundeetan eztabadagi nagusia, Hilay Clinton andreak aurrikusten duenez. Izan ere, USA barneko Ipar-Hegoa desoreka sozia-lak USAko gizartea bera lehertu lezake murrizpen ekonomikoa etorritz-gero. Europako ongizate gizarte eredia babestu ala USAko gizaba-nakoaren sistema eraiki.

Ipar-Hegoaren arteko desoreka soziala eta ekonomikoa da mun-duan inoiz izan den desorekarik sakonena den hori filosofo neomaxis-ten kezka nagusia bilakatu da eta baita Askatasunaren Teologia deitu-riko joera erlijiosoaren gai nagusia ere.

Desoreka hau ere globalizat jo behar dugu. Agian beste desorekekin bateginik (eman dezagun teknika atomikoen barreiaketa ematen dela) edo beste nolabait gizarte osoaren etorkizuna arriskuan jar dezakeelako.

Ipar-Hegoa desoreka lazarri honek ere erantzun ideologikoa behar du eta ezkerak, ezker berriak bere egin behar du erantzun hori... Zo-



rrak barkatu, mailegu beratzak eman, teknologia bertaratu, lehengaiak babestu eta batez ere, nekazalkoko ekoizpenei oztopo komertzialak kendu.

3.4. Bada oraindik laugarren arrisku bat globaltzat jo behar duguna, eta globalizapenaren oharmena edo kontzientzia sortarazten diguna. Zera da, hiperpopulazioaren arriskua.

Arazo hori ezkutatu egin nahi izaten dute ald batetik erlijioen eragin ideologikoaren mendekoez eta bestetik liberalismo trinkoaren baikortasun liberala mantentzen dutenek.

Baina etorkizuneko oreka sozialak behartzen gaitu erantzun ideologiko bat ematera. Malthusianismoa bere osotasunean jaso gabe ere ezker plangintza bat onartu beharra dauka datozen urteetako gizartearen irudikatzean.

Arrisku globaleten ondorioz erikitzen da, ene ustez globalizapenaren oharmen edo kontzientzia. Eta horren erantzunak dira nahitaez ezker politikoaren premiak, egistasmoak eta hezrudura ideologiko onitzen dituzten lehengaiak.

Izan ere, zein da eskuinak, eskuin politikoez eta indar ekonomikoek erronka hauei ematen dieten erantzuna?

Bat, bakarra, errentagarritasun ekonomikoa. Horixe da eskuinaren erantzuna. Eta adibiderik gertuenekoa bertan daukagu, zera alegia Eguraldi Aldaketaren mehatxuaren aurrean hartzen diren neurriak. Eguraldi aldaketa desoreka ekologikoaren aurpegia baizik ez da; soilik azala eta adibidea, baina horixe da mundu zabaleko gizarteetan kezka sortzen ari den leherketa geldoaren (zera alegia, desoreka ekologikoaren) aurrekaria. Eta horra; ez dute ezta Kyotoko hitzarmen xumea bera ere betetzen.

Etorkizuna ezin da irudikatu errentagarritasun ekonomikoaren arabera. Geroa ezin da baldintzatu errentagarritasun ekonomikoaren arabera.

Arrisku globalek adierazi eta azaldu digute bestalde, ez dagoela adurrik eta ezta ere probidentziarik edo azoka edo ekonomiako joaeredurik etorkizuna berma liezagukeenik.

Gizakia umezurtz legoke etorkizunaren erronka aurrean eta bere euskarri bakarra balio etikoen konpromezua ekar diezaiokeen ideologia da. Apokalipsisa ordezkatu duten arrisku globalen atzean ezkutaturik dago orain Jainkoa, inoiz agerian egon bazen ere.

#### 4. ETORKIZUNeko EZKER POLITIKO INTEGRATZAILEA. ZEHARKAKOTASUNA EDO TRANBERTSALITEA

Gizartearen ereduak behartzen eta bultzatzen du benetako ezkerra. Eta eredu sozial horren ezagurri nagusia ANIZTASUNA da.

Etorkizuneko gizarte aitz horrek ezberdinen arteko elkarlana bultzatzen gaitu.

Ezkerreko balioak eta etorkizunaren lehenesteak, elkarlaneta bultzatzen ditu eta aurrekoiak politikak defendatzera jatorri, sentsibilitate eta kultura ezberdinetako ezker eta aurrerakoi diren indar politikoak.

Ezberdinen arteko elkarlana, ezberdintasunak aitortuz egiten den elkarlana.

NABAI eta EB-ARALAR koalizioek, beren berdintasunak eta ezberdintasunak izanda ere, badaukate adierazle amankomun bat eta zera da, zeharkakotasuna, ezberdinen arteko elkarlana bultzatzeko asmoa eta erabakia.

Independentistak eta federalistak edo autonomistak elkarrekin bizi gara sozietatean. Gizarte ber-bera osatzen dugu, aize berdina arnasten dugun bezalaxe. Amankomunean ditugun helburuetarako indarrak batzea, gizartearen beraren eredu jarraitzea da eta sinergia horiek metatzen duten

Ezin da indar politiko metaketarik egin, ezberdintasunak onartu gabe eta ezberdintasun horien aitorenetik abiatu gabe. Indar metaketaren etsai eta oztopoa beti abangoardiaren amets zaharkitua izan da. Garapen politikoa telezuzendu edo tutelatu nahi izatea. Horixe izan da Ezker Abertzalearen bilakaera politikoa eta garapen politikoa behin eta berriro oztopatu duena.

Abangoardia den gaitza eztabaida eta borroka ideologikoarekin sendatzen da eta dema politiko hori da

Izan ere, Euskal Herriaren normalizazio politikoa Euskal Ezker politikoaren normalizazioan datza. Prozesua deitzen den horilehen urrats hori da.

Independentistak edo federalistak aitortzen garenok bide luzea daukagu aurrean elkarrekin egiteko.

Eguneroko bizimoduko eta politikako arlo gehienetan elkarrekin ez ezik, gizarteko beste eragile, ikuspegi eta sentimendu hainbatekin ere elkar ulterzen eta adosten saiatu nahi dugu eta saiatu beharko dugu.

Aniztasunarena da etorkizuna.

Eta aniztasunaren irudirik eta eredurik sakonena zeharkakotasuna bilatzea da, tranbertsalitatea, abertzaleen eta abertzale ez direnen arteko elkarlana.

Euskal Herriak bere normalizazio politikorako euskal ezkerren normalizazioa behar du eta hori aniztasunaren oinarri eta egiturarekin eraikitzen da. Soilik horrela lortzen baita gizarteak onartua izatea.

**Ezker Erabakiorra** da Euskal Herriak behar duena eta jokabide, indar eta esparru hori eraikitzen saiatu nahi dugu.

Esan bezala, eguneroko bizimoduan eragin ahal izanen duen ezkerria; hitzarmenak eta paktuak egiteko gaitasuna duen ezkerria; ingurumenaren zaintzan indarra eta adorea adieraziko duen ezkerria; eskola, sendakuntza eta ongizatearen zerbitzu publikoetan duintaunsa zainduko duen ezkerria.

Izan ere, Ezkerria erabakiorra bilakatzen da oihukatzen baino entzuten gehiago dakienean. Ezkerria erabakiorra izatera iristen da arerioak astintzen baino eztabaida politikoan borondateak irabazten dituenean. Ezkerria erabakiorra bilakatzen da tinko eta indartsu gizarte osoaren alde jokatzeko duenean eta bereziki behartsueneren alde kokatzeko denean.

Ezker erabakiorrak itunak egiten behar ditu, eztabaidaren eta borroka ideologikoaren ondorioz eta ez haserrearekin astindu.

**Ezker Eraldaitzailea** eraiki nahi dugu. Etorkizunari so, indar aurrerakoiak bildu ahal izanen dituena.

Gehiengo handi batean aurrerakoia edo progresista den Euskal Herriko gizarteak, zentzu bereko indar politikoak behar ditu; aurrerazaleak.

Euskal Herriko langilegoak, ikaslegoak eta oro har, gizarte honetako eragilerik dinamikoenak inolako abanguardiarik gabeko eta askatasun eta zabaltasun osoko erreferentzia politikoak behar dituzte.

Eraldatzaile izateak esan nahi du ustelkeria ororen aurka tinko eta zintzo saiatzera behartzen gaitu. Inolako salbuespenik edo etenik gabeko ustelkeriaren aurkako borrokan.

**Garapen jasangarria** da gure Ezkerriaren xede politiko nagusia.

Eraikuntza publikoak, ondakin politika, lurralde antolaketa ingurumenaren zaintzaren babesean ipini behar dira.

Ingurumenaren balioa bera era zeharkako balioa da; Gizarteko arlo guztietan garatu beharrekoa. Eta helburu hori xede nagusia bilakatzen da ezkerrarentzat, baldin eraginkorra eta eraldaitzailea izan nahi badu.

***BAKEA da halere***, indarrik handienaz bategiten gaituen helburua.

Inolako lorpen politikorik bilatu gabe, inolako abantaila politikorik gabe.

Eta berdin dena, inolako baldintzarik gabe.

Bakea behin betiko.

ETAK joan den urteko abenduko Barajasko ekintzarekin ezinezkoa bihurtu zuen hemendik aurrerako su-etena. Ezinezkoa edozein su-eten. Sinesgarritasuna putzura bota zuelako eta su-etenaren beraren izatea ETAREN sinesgarritasunean oinarritzen zelako.

Soilik behin-betiko etena, bermatua eta kontralatua eskaintzea gelditzen zaio ETARI ez badio kalte gehiago egin nahi Euskal Herriari, begiruna izan nahi badie kaltetu edo biktimei eta kartzeletako ateak irekitzen saia gaitezen nahi badu.

Behin-betiko armak erabiltzearen ukoak bakarrik egingen ditu posible ageriko elkarrizketa politikoak. Eta soilik ageriko elkarrizketa politikoek alda lezaketa egoera orokorra.

Euskal Herriko lurraldetasuna, autodeterminazioa, eta agian jendeak nahi badu, independentzia, bide politikoetatik lortuko ditugu eta lortzen ari gara.